



MEMORIA 2017

INTXAURRONDO
LARROTXENE
KULTUR ETXEA



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN



donostia
kultura



INTXAURRONDO / LARROTXENE KULTUR ETXEA



© Lorena Otero

Julietta Benegas.

Intxaurreondo Kultur Etxeak, musika arloan espezializatuta dagoen kultur etxeak, askotariko zuzeneko kontzertuak eskaini ohi ditu urtero; erreferentea da hirian arlo horretan eta iazko uzta ez zuen txikiagoa izan. Iaz zehazki **17 kontzertu** eskaini ziren, horien artean: **Bigott, Ivan Ferreiro, Hesian, Julieta Venegas, Los Tiki Phantoms, Gatibu, Cracker, El Twanguero, León Benavente,**

Adrián Costa, Chk Chk Chk eta The Wedding Present.

Esan behar da, udazkenean egindako bost kontzertuetatik lautan sold out kartela zintzilikatu zela, beraz, oso udazken oparoa izan zen, dudarik gabe. Eta ez dugu ahaztu behar gainera lau horietatik hiru euskal taldeek eskainitako kontzertuak izan zirela: **Glaukoma, NCC eta Bidehuts.**

2016 **Musikagela** zerbitzuaren egonkortze urtea izan bazen, 2017 sendotzearena izan zela esan daiteke. Ohiko entsegu lokalen alokairuaz gain, jarduera anitz antolatu ziren eta harrera ezin hobea izan zuten.

VII. Musikagela Weekend jaialdia izan zen martxoan eta bertan jardun zuten **Nothing Box, Charlie & The Colours, Pelax** eta **Frank** taldeak; talde anitzak eta publiko zabala



© Lorena Otero

Nuevo Catecismo Católicoren urteurren kontzertua.



© Lorena Otero

Glaukoma.



INTXAURRONDO / LARROTXENE KULTUR ETXEA



© Lorena Otero

Musikagela Weekend.

biltzea lortu zutenak. Horretaz gain, **Musikagela Zuzenean** kontzertua eskaini zen udazkeneko sasoiari hasiera emateko eta bertan entseguak egiten jarduten duten hiru talde aritu ziren; **Glory Howl**, **Tenpera** eta **Baipass**.

Horretaz gain, **El Twanguero** eta **Adrián Costa** musikagileak hurbiletik ezagutzeko aukera izan zen **Musikagela Topo** jarduerari esker.

Eta bereziki arrakastatsua izan ziren 2017-2018 ikastaroak, ia denak bete baitziren: Zuzeneko sonorizazioa, Egin musika zure ordenagailuarekin, Bateria, eta abar.

Komikigintza ere bada aipamen berezia merezi duen arloa. Urtetik urtera handitzen joan den komiki bilduma eta komikiarenganako erakarpina sustatzea helburu dela, literatura zein komiki solasaldiak antolatu ziren ikasturtean zehar; eta baita bestelako jarduerak ere, horien artean: Komikilabearekin egindako elkarlana dela-eta **Susana Martín** komikilariak Palestinari buruz egindako marrazki erakusketa eta honekin lotutako zenbait bisita gidatu.

Oro har, ugariak izan ziren urtean zehar antolatutako jarduerak eta egitasmoak, horietako batzuk dagoeneko oso errotuak auzoan eta auzoko eragileekin elkarlanean antolatuak. Horien artean dira, esate baterako,

Emakumeen astea, XXIII. Ibiltarien astea, Extremadurako Kultur Astea, VI. Intxaurren Eguna.

Olatu Talkak, Antzerki Feriak, Giza eskubideen zinemaldiak edota **Poltsiko Antzerki Jaialdiak** ere izan zuten lekua Intxaurren. Eta ezin ahaztu ere auzoan zehar egin ziren Kale Antzerkiak.

Aipamen berezia merezi du ere azaroan hasi eta abendua bitartean burutu zen **Baiez 20 Egun Euskaraz**


jarduerak; izan ere, Intxaurren Kultur Etxean egin ziren hainbat jarduerak eta bazkari herrikoia.

Eta ezin ahaztu, era berean, Crowdfunding bitartez kultur etxean aurkeztu ziren hainbat proiektu:


Book Box, **Teresa Castroren** **Lesbicomix** liburua eta **Julio Santos**en ipuin bilduma.

Amaitzeko, azpimarratzekoa da ere eguneroko jardunean kultur etxean txertatuta dauden hainbat zerbitzuren arrakasta: **+55, Gazteleku eta Haurtxoko zerbitzuak.**

Haurtxoko eta Gazteleku zerbitzuei dagokienean, ekimen ugari egin ziren, bai egunerokoan zein epe luzeko proiektuetan parte hartuz. Haurtxokoari dagokionez, eta haurren partaidetzaren sustapenean aurrerapausoak eman nahian, hainbat proiektu landu ziren: Plus 55ekin batera, **Clown sketchak** edota Intxaurren Hegoa ikastolako Guraso Elkartearekin **Oinbusa** proiektua. Horrez gain, komunitatearekin eta auzoko erakundeekin elkarlanean, **Intxaurrendoko festetan, Euskararen Egunaren ospakizunean eta 20 ordu baiez!** ekimenean lagundu zuten, bide berriak irekitzeko prestutasun guztia azalduz. Urteko balorazioa oso ona izan zen eta 2018ak ere ekimen berriak ekarriko dituela aurrera daiteke: Txara 2 egoitzarekin, besteak beste...



Zirika Zirkus.



INTXAURRONGO / LARROTXENE KULTUR ETXEA



LARROTXENE BIDEO XXIX. BIDEOALDIA

Bideoaldia.

Larrotxene Bideo izen berdineko kultur etxeak eskaintzen duen zerbitzurik ezagunena da. Zerbitzu honek atal desberdinak ditu: grabaziorako eta ediziorako materialen lagapena, proiektu berrietarako aholkularitza zerbitzua eta bideo eta zinema ikastaroen eskaintza, eta horietako grabaketa lanak. Grabaketa lan horien emaitza erakustek plataforma da **Bideoaldia**.

Hala, **XXIX. Bideoaldia** izan zen iaz ekaina amaieran, urtero legez, **Antzoki Zaharrean**, eta ikasturtean zehar egindako hamaika **produktzio eta beste hainbat koproduktzio** ikusteko aukera izan zen. Irailean, berriz, Trueban egin zuen Larrotxeneko erakustaldia **Donostiako 65. Zinemaldiaren** programazioaren barruan.

Bideo ikastaroek gero eta harrera hobea dute, eta urtetik urtera ikasle

kopurua handitzeaz gain, egindako lanen kalitatea ere hoberantz doa, eta lan batzuk zenbait jaialdietan aukeratuak eta sarituak izan dira. Horren adibide dira honako hauek:

- **Truco o trato**: nazioarteko zenbait jaialditan aukeratu.
- **Kreba**: Eibarko eta Errenteriako film laburren jaialdietan euskaraz egindako film laburrik onenaren saria eta Begiradak jaialdian gidoi onenaren saria. Horrez gain, aukeratu izan zen Ikuska, Zinegin eta Lekeitioko jaialdietan.
- **Andante piú forte**: Ikuska jaialdian gidoi onaren saria jaso zuen eta bai Eibarko eta bai Lekeitioko Zine Bileran aukeratu zuten.
- **Errailak**: Santurtzine, Eibarko film laburren jaialdian, Errenteriako film laburren jaialdian eta Lekeitioko Zine Bileran aukeratu izan zen.
- **Prudentzio**: Santurtzine eta Eibarko jaialdian aukeratu izan da.

Materialaren 143 lagapen egin ziren eta edizio gelak 56 aldiz erabili ziren. Era berean, aipatu behar da **Musikene** goi musika eskolarekin elkarlanean, eskola horretako ikasleek konposatu zituztela Larrotxeneko film laburren **soinu bandak**.

Iaz nabarmentzekoa izan zen **Begiradak - Las otras miradas** Jaialdian Larrotxene Bideok jasotako **saria**; hain zuzen, Ikus-entzunezko hezkuntzan egindako ibilbide osoagatik.

Baina bada bideoaz gain Larrotxeneri izaera berezia ematen dioten hainbat jarduera eta horien artean aipatzekoa izan zen **Lagunekin Kantari** izenekoak. Auzotik bertatik sortutako egitasmo arrakastatsu honen bitartez donostiar kantu zaleak topagune garrantzitsua dute Intxaurren Zaharrean. Hala, iaz **Eñaut Elorrieta** eta **Mikel Markez** izan ziren gurean saio bereziak dinamizatzen eta auzoaren atxikimendu handia sortu zuen horrek.

Bestalde **IZBE elkarrekin** antolatuta **Intxaurren Atzo eta Gaur: 1970 urtetik aurrera** argazki erakusketa egin zen.

Gainerakoan, **liburutegiak** urteroko bisitari kopuruari eutsi zion eta mailegu zerbitzua indartu eta hobetu egin zen. **Ikastaroek**, oro har, oso harrera ona izan zuten eta haurrentzako liburuen gaineko ekitaldi bereziak antolatu ziren, auzoko hainbat eskoletako ikasleekin lan eginez, eta oso emaitza onak lortuz. Horretaz gain, ezin ahaztu hilero antolatutako formatu txikiko **haur antzerkiak** edota **kale antzerkiak**, Intxaurren bertan eta baita **Bidebieten** ere.



INTXAURRONGO / LARROTXENE KULTUR ETXEA

INTXAURRONGO KULTUR ETXEA

JARDUERAK		
	KOPURUA	ERABILTZAILEAK
GUZTIRA	161	16.617
Antzerkia	12	2.834
Musika	23	5.593
Zinea eta bideoa	5	259
Hitzaldiak eta mahai inguruak	8	988
Erakusketak	5	1.230
Bilerak eta elkarten ekitaldiak	49	1.291
Liburutegiko jarduerak	25	1.025
Plus 55	15	1.215
Gaztelekua	3	143
Haurtxokoa	5	439
Olatu Talka	11	1.600
ZERBITZUAK		
	BISITAK	
GUZTIRA	73.946	
Liburutegiko bisitariak	62.511	
Haurtxokoa	3.490	
Gaztelekua	4.586	
Musikagela	3.359	



INTXAURRONGO / LARROTXENE

KULTUR ETXEA

Prestakuntza **EMAKUMEAK**

	GUZTIRA		EUSKERAZ		GAZTELANIAZ	
	KOPURUA	ERABILTZAILEAK	KOPURUA	ERABILTZAILEAK	KOPURUA	ERABILTZAILEAK
GUZTIRA	65	794	10	73	55	721
2016/17 Ikastaroak	28	353	4	33	24	320
2017/18 Ikastaroak	37	441	6	40	31	401

Prestakuntza **GIZONAK**

	GUZTIRA		EUSKERAZ		GAZTELANIAZ	
	KOPURUA	ERABILTZAILEAK	KOPURUA	ERABILTZAILEAK	KOPURUA	ERABILTZAILEAK
GUZTIRA	65	255	10	22	55	233
2016/17 Ikastaroak	28	118	4	12	24	106
2017/18 Ikastaroak	37	137	6	10	31	127

BISITAK GUZTIRA: 235.201



INTXAURRONGO / LARROTXENE

KULTUR ETXEA

LARROTXENE

KULTUR ETXEA

JARDUERAK		
	KOPURUA	ERABILTZAILEAK
GUZTIRA	66	4.008
Antzerkia	8	400
Musika	5	380
Zinea	2	470
Bilerak eta elkarten ekitaldiak	41	585
Liburutegiko jarduerak	10	2.173
Bilerak eta elkarten ekitaldiak	49	1.291
Liburutegiko jarduerak	25	1.025
ZERBITZUAK		
	BISITAK	
GUZTIRA	14.480	
Liburutegiko bisitariak	11.400	
Bideo tailerra	3.080	



INTXAURRONDO / LARROTXENE

KULTUR ETXEA

Prestakuntza **EMAKUMEAK**

	GUZTIRA		EUSKERAZ		GAZTELANIAZ	
	KOPURUA	ERABILTZAILEAK	KOPURUA	ERABILTZAILEAK	KOPURUA	ERABILTZAILEAK
GUZTIRA	33	399	7	85	26	314
2016/17 Ikastaroak	16	230	4	56	12	174
2017/18 Ikastaroak	17	169	3	29	14	140

Prestakuntza **GIZONAK**

	GUZTIRA		EUSKERAZ		GAZTELANIAZ	
	KOPURUA	ERABILTZAILEAK	KOPURUA	ERABILTZAILEAK	KOPURUA	ERABILTZAILEAK
GUZTIRA	33	154	7	34	26	120
2016/17 Ikastaroak	16	62	4	15	12	47
2017/18 Ikastaroak	17	92	3	19	14	73

BISITAK GUZTIRA: 126.963

BISITAK GUZTIRA INTXAURRONDO / LARROTXENE: 362.164